

Euskal Aditzari Begira

Adizki jokatugabeak -I-

Aditzoina

Konparazioak

Argazkia

Aditzoina noiz eta nola erabili

EAB 2

EUSKAL ADITZARI BEGIRA

gure aditza modu erakargarrian aurkezteko beste ahalegin bat da.

Gaurko bitarteko digitalak baliatuz,
euskal aditza pantailara eraman nahi dugu;
eta pantailatik, ikusle-ikaslearen hizkuntz-korpusera.

HELBURU NAGUSIA

HIZKUNTZA ZUZENTASUNEZ ERABILTZEA

«Hizkuntzaren elementu formal eta mekanismoei buruz hausnartzea, haren maila fonologiko, morfosintaktiko, lexiko-semanticoko eta testualetan, eta mezuen ekoizpen eta harrera baldintzei buruz, komunikazioko gizarte-testuinguruetan, berezko ekoizpenak arautzeko gaitasuna garatzeko helburuz».

«Hizkuntzaren irakaskuntzak *Euskal Hizkuntza eta Literatura* arloaren mugak gainditzen ditu, hizkuntza ia curriculum osoan irakatsitako ikaskuntza guztien euskarri delako, eta eskolako ikaskuntza-prozesuak, neurri handi batean, hizkuntza-gaitasunaren garapenaren mende daudelako».

Oinarrizko curriculum-diseinua

Euskal Aditzari Begira

Adizki jokatu gabek -I-

AURKIBIDEA

Aditzoina.....	3
Konparazioak.....	6
Argazkia.....	8
Aditzoina noiz eta nola erabili.....	11

ADITZOINA

Liburuetan

Forma jokatu gabean agertzen diren adizkiek ez dute ez aldi-, ez pertsona-markarik hartzen; beste modu batera esanda, ez dute ez denborarik, ez pertsonarik adierazten.

Adizki jokatu gabeak hiru multzo nagusitan sailka daitezke:

Aditzoina: *etor, sar, har, eros, ikus...*

Partizipioa: *etorri, sartu, hartu, erosi, ikusi, bilatu...*

Aditz-izena: *etortze, sartze, hartze, eroste, ikuste, bilatze...*

«Zertan, ergela, jarri haiz ur berean nirekin?

Hago, jostetak **erabil** itzak hire idurikoekin.

Geldi hadi, zitala, ura zikintzen didak niri.

Ikus ezazu nola ura datorkidan hor gaindi.»

GOIETXE, Leonce: *Fableak eta alegiak*

«-**Adi** ezak, Mattin, eta **har** ongi buruan erratera noan hau; denbora laburrik barnean, hona etorriko dituk Zugarramurdiko auzapeza, eta haren lagun bat edo bi; **sarraraz** itzak ganbara honetan eta **jarraraz** horrako aulki horren gainean; aditu behar ditek ongi, zer ordena ematen dugun lagunak eta nik.»

ELIZANBURU, Joan Bautista *Piarres Adame*

Neskatxa gazte paregabea, apirileko arrosa,
izarra bezain distiratsua, txoria bezain airoa;
oraintxe baino gustu gehiago nik ezin nezake **goza**:
zori onean ikusten zaitut, nire bihotzak hau poza!

BILINTX: *Ja-jai!*

«Esan nion desio senti nuen gisan,
harekin hizketa bat nahi nuela izan;
erantzun zidan ezik atsegin **har** nezan,
Adituko zidala zer nahi nion esan.»

BILINTX: *Izazu nitaz kupira*

Euskara batuan, aditzoinak erabiltzerakoan, forma berezien onestea eta gomendatzea egoki ikusten du Euskaltzaindiak.

Bete hutsuneak

Partizipioa	Aditz-izena	Aditzoina	Partizipioa	Aditz-izena	Aditzoina
eraman	eramatea		hartu	hartzeari	
joan	joatea		ekarri	ekartzea	
apurtu	apurtzea		esnatu	esnatzeko	
ikusi	ikusteko		ohartu	ohartzea	
saiatu	saiatzeaz		bidali	bidaltzea	
idatzi	idaztera		kezkatu	kezkatzaz	
itxi	ixtea		kantatu	kantatzeari	

HELBURUA

Hizkuntzaren mekanismoei buruz hausnartzea maila fonologiko, lexiko-semanticoko eta testualetan.

EDUKIAK

Kontzeptuak: Aditzoinaren funtzioak eta kategoria.

Prozedura: Konparazioak. Aditzoinaren izaeran sakontzeko jolasa.

EBALUAZIOA

—Hizkuntz-erabilera: testu-egitura, kohesioa, perpausen egitura, hitzen eraketa.

—Klasean proposatutako ekintzekiko jarrera.

ZER EGIN

- a) Ikusi atala oso-osorik.
- b) 6. orrialdea fotokopiatu eta banatu. Ikasleko bana.
- d) Orrialde horretan gure protagonisten konparazioak daude. Irakurri ozenki klasean. Ikasleei galdetu gure protagonisten logikaz eta horren gainean solastu. (*hamar minutu*)
- e) Banatu ikasleak lauko taldetan.
- f) Talde bakoitzari eskatu konparazio bat egiteko, ikus-entzunezkoan gure protagonistek egin dituztenak bezalakoak. Horretarako, orrialde horretan bertan dauzkaten ideiak erabil ditzakete edo beraiei burututakoak. (*hamar minutu*)
- g) Egindako konparazioak ikasle guztiek entzuteko moduan esan. Beste ikasleei eman bidea kritikak egiteko.

HELBURUA

Hizkuntzaren mekanismoei buruz hausnartzea maila fonologiko, lexiko-
semantiko eta testualetan.

EDUKIAK

Kontzeptuak: Aditzoina aginterazko perpausetan.

Prozedura: Antzezpena. Zuzendariaren lana.

EBALUAZIOA

- Hizkuntz-erabilera: testu-egitura, kohesioa, perpausen egitura, hitzen eraketa.
- Klasean proposatutako ekintzekiko jarrera.

ZER EGIN

- a) 9. eta 10. orrialdeak fotokopiatu eta banatu. Ikasleko bana.
- b) Ikus-entzunezkoan ikusiko duten antzezpenaren hitzak orrialde horietan daude, aginduak emateko erabili diren aditzoinak azpimarratuta. Ikasleei esan bakoitzak bere kasa irakurtzeko. Bost minutu eman.
Ondoren, ikasleei esan testuko solasak banan-banan irakurriko dituztela, dauden tokietatik mugitu gabe, ozenki.
Gelako mutur batean dagoen ikasleak irakurriko du lehenengoa (Koldorena). Albokoak bigarrena (Kristinarena). Haren albokoak hirugarrena (Kolodrena). Haren albokoak laugarrena (Susanarena). Horrela solasaldi guztiak irakurri arte.
- d) Testu antzeztuaren irakurketa amaitutakoan, 10. orrialdeko, aditzoinen amaierari buruzko ohartxoak ikasleei azaldu. Ohartxo horietako adibideak antzeztutako testutik ateratakoak dira. Bilatu.
- e) Ikusi atala oso-osorik.

- SUSANA —Beno... Zeharo-zeharo ez, baina, tira...
- KRISTINA —Etor hona eta **eser** zaitez aulkian.
- KOLDO —Ez dakit, ez zait gustatzen. Zer bait falta zaio, baina ez dakit zer den.
- KRISTINA —Ba, **pent**sa azkar eta **erabaki** azkarrago. Gu seietan bagoaz.
- SUSANA —Uuuu! Ez dakit ba, zuk **jarrai** masajearekin, ez zaitez geldi, **mugi, mugi** atzamar miragarri horiek beldurrik gabe. Uuuuu!
- KRISTINA —Hara, bestea.
- SUSANA —Ummm!
- KRISTINA —Ez gero lo **har** Susana.
- SUSANA —Ummm!
- KOLDO —Badakit, badakit zer falta den. Zuek **geldi** hor! Oraintxe zaudeten bezala, **geldi!**
- SUSANA —Zer bururatu ote zaio orain horri?
- KRISTINA —Ez dakit, baina, hor doa. Zu, zer? Hobeto?
- SUSANA —Ai! Ez, **segi, segi** horrela. Hamar minutu.
- KRISTINA —Hamar minutu? Susana... Ez gero **ohitu**, gaurkoa lehena eta azkena. Beno, agian bada egin dezakezun beste gauza bat. Alegia, **ikas** zuk ere masajeak ematen eta, horrela, elkarriemango dizkiogu. Hamar minutu eguneror, zuk niri eta nik zuri.
- SUSANA —Konforme.
- KOLDO —Momentu bat behar ditut. Berehala egingo dut argazkia. Kris, **jarrai** masajearekin. Susana **itxi** begiak eta goza. Kris **jait**s aurpegia, eta **uki** kokotsaz Susanaren burua. **Begira** ezkerretara.

Aditzoinak bukaeran *-i* berezkoa duenean, *-i* amaieran atxiki behar da.

KOLDO —Ez da ideia txarra, ez. Aurpegia bustitzeak buruko mina arindu ohi du. **Busti** dezala, beraz. Hori bai, ur hotzez **busti** dezala eta **igurtzi** ditzala lokiak; ongi baino hobeto etorriko zaio.

-i hori berezkoa ez duenean, ordea, galdu egiten da.

SUSANA —**Has** gaitezen arkatzak zorrozten. **Jar** ezazu paper bat mahai gainean. Han bilduko dugu txirbila. **Ekar** itzazu bi aulki. Eserita gutxiago nekatuko gara.

Itxi aditza salbuespena da. *Itxi* aditzak amaierako *-i* atxikia eskatzen du.

KRISTINA —Hori bai, komuneko atea **itxi**.

Eutsi eta *iritzi* aditzen kasuan aukera uzten da. Bietara erabil daitezke.

KRISTINA —Ongi da. **Eutsi** goiari ordu erdi, Susana, berehala bukatuko dugu eta.

Aditzoina

Aginduak emateko

KRISTINA —Mugi, azkar, bostak dira eta!

SUSANA —Itxaron apur batean! bukatzear nago.

KRISTINA —Altxa hortik! **Utz** guztia dagoen dagoenean eta goazen.

Aditzoina

Galdera erretorikoetan

—Nola **asma** zein den ebaki behar dena?

—Nola ez **maita** halako mutil zintzoa?

—Noiz arte **lepora** erru guztiak niri?

—Nork **sinets** horrek esandakoa?

Aditzoina

Errefrauetan

Otsoa non
aipa, han
gerta.

Non fida,
han gal.

Borondateak
zentzua gal.
Argi dago,
ezta?

Kandelariotan
eguzkia ikus
baino, otsoa
ardi tartean
hobe.

Aditzoina

Zehar galderetan

Bulegoan

KRISTINA —Ez dakit **nondik hel**, ez **nola har** traste hau. Beldur naiz, apurtuko dudan.

Kalean.

SUSANA —Jo Kris, ez dakit begiak itxi eta **eros** ala bitan pentsatu eta bertan **utz**. Prezioz ongi dago, baina ez dut behar.

Bulegoan

XABIER —Ez diot oraindik daukan zukuaren erdia atera ordenagailuari. Badut oraindik zer ikas.

Aditzoina

Zenbait esapidetan

—Hobe duzu ezer ez esatea, **zer gerta ere**.

—**Mintza** eta **mintza** ari zen.

—Aurtengo emaitzak, **oro har**, oso onak izan dira.

Aditzoinari atzizki bat erantsiz gero, hitz berri eratorria lortuko dugu.

Egongelan daude Kristina eta Susana.

SUSANA —Makina bat **ibiltari** ikusi genuen Tolosako mendi-itzulian.

KRISTINA —Ibiltari ez ezik, argazkilari eta kazetari mordoa ere ikusi genuen.

SUSANA —Haurrik ere ez zen falta izan; eskerrak **begiraleak** jarri zituztela.

KRISTINA —Ezin gara kexatu. **Antolatzaileek** ederto portatu ziren.

SUSANA —Ederto baino gehiago, bikain portatu ziren.

KRISTINA —Alberto, zure **ikaskide** izan zena ere hantxe zebilen.

SUSANA —Bai, Jon. Makina bat **ikastaro** egin genuen elkarrekin gaztetan. Gurekin igo zuen lehenaldapa; gero bere lagunekin joan zen.

KRISTINA —Idatzi duen liburuaren aurkezpenera gonbidatuko gintuela esan zigun. Ea noiz jasotzen dugun **gonbidapen** formala.

SUSANA —**Itzaropena** ez da inoiz galdu behar.

KRISTINA —Ez gaitu gonbidatuko.

SUSANA —Ez dut uste. Harrituko nintzateke gonbidatuko bagintu.

KRISTINA —Eguraldiak ez zigun gehiegi lagundu. **Aldakor** ibili zen goiz osoan. Orain goibel, orain garbi.

SUSANA —Hori bai, **hondakin** mordoa pilatu zen bideetan.

KRISTINA —Bai. Ez zen **ikuskizun** polita. Badakizu, hainbeste jende ibiltzen den tokietan, beti gertatzen da.

KRISTINA —**Amaiera**, baina, oso polita izan zen.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi: *Euskal Gramatica Osoa*, Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI, Josemari: *Gramática Gaitasuna Lantzen*, Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA: *Euskaltzaindiaren arauak*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com

Euskal Aditzari Begira

Aditz multzoaren egitura

Adizki jokatuqabeak -I-

Adizki jokatuqabeak -II-

Adizki jokatuqabeak -III-

Adizki jokatuqabeak -IV-

Adizki jokatuak -I-

Adizki jokatuak -II-

Adizki jokatuak -III-

Aqintera, baldintza eta aditz arazleak

Aditz-lokuzioak

Zenbait aditz bihurri

Ekoizlea:



Getaria, 18-behea

01010-Gasteiz

Tel-faxa: 945200608

artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net

www.artez-bai.com

LG.- VI- 462 / 08

Ikasmaterial honek
Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena du.

2008/11/27